




# FUNTSEZKO JARDUERAK

Web orrialdearen bidez **bezeroengana iristea** eta bezeroekin harremanetan jarri nahi gara horrela **diru sarrerak sortzeko** eta gure **enpresa aurea** joatea lortu ahal izateko. Gure enpresan, jarduera mota guztiak oso garrantzitsuak dira.

→ **Produkzioa:** Produkzioari garrantzia handia ematen diogu, guk bakarrik egiten dugulako, eta **gure asmakuntza** delako. Beraz, oso ondo garatu behar da produktuaren ekoizpena.

- **Diseinua: propioa** da, guk asmatu dugu; hau da, gure ideia izan da. Makila **kolore askotako** erosi daitezke eta bere **tamaina erregulatu** daitezke. Oinarria **ez-irristatzekoa** jarri dugu eta zabalagoa da beheko aldetik. **GPSa, telefonoa** eta **alarma** inkorporatuta dauzkate.
- **Kantitate jakin batzuetan produktua egitea:** Produktua gure **langile kualifikatuek** egingo dute, eta gutxi gorabehera gure eskaera dela eta produktuaren ekoizpena handitu edo txikituko dugu. Gure proposamena gero eta makila gehiago egitea da.



- **Entrega:** Entregatzeko, **Correos** enpresarekin elkartuko gara. Bezeroei haien etxeetara helduko zaie produktua. Arazoak egotekotan, gure erosleek aldatzeko aukera izango dute, eta **dirua bueltatzeko aukera** daukate ere.

→ **Arazoak konpontzea:** LERIA MAKILAK **bezero potentzialen arazoak konpontzeko** sortu dugu. **Ibiltzeko eta oreka mantentzeko arazoak dituzten guztiei lagunduko** diegu. Haien bizimodua errazteko eta bizi kalitatea hobetzeko.

- **Ezagutzearen gestioa: Hasieran 5 ingeniari** edukiko ditugu frogak egiteko eta gure makilan ahal den hobean ateratzeko eta sortzeko, gure bezeroen arazoak konpondu ahal izateko. Eta benetan haien bizitzan eta egunerotasunean lagundu ahal izateko. Ingeniariak **2 hilabetez** egongo dira enpresan lan egiten. Ondoren, bakarrik **3 langile** edukiko ditugu makilen ekoizpenean.
- **Etengabeko prestakuntza:** Gure langile guztiak kualifikatuak izango dira eta egunero haien esfortzu guztia jarriko dute makilak aurrera



eramateko. Baita **makilak hobetzeko eta etorkizunean sortzen diren arazoak konpontzeko** ere.

→ **Plataformako edo sareko jarduerak:** Gure produktua web orrialdearen bidez salduko dugunez, oso garrantzitsua da. Gure erosleei heldu ahal izateko eta behar duten informazio guztia eta zalantza guztiak bertan aurkitzeko. Horrela bezero gehiago izango ditugu eta gure enpresa handituz joango da. Hori dela eta, asko zaindu behar dugu **web orrialdearen estetika eta diseinua** ere.

- **Plataformaren gestioa:**

**Gestioa** Mariak egingo du lan, web orrialdean sortzen diren zalantzak eta galdera guztiak erantzungo dituzte. **Sare sozialak** eta **telefonoa** Leirek gestionatuko ditu **bulegoan** bertan.



- **Etengabeko mantenua:**

Leirek eta Mariak izango dira sare sozialen eta web orrialdeen mantenuen erantzule, hurrenez hurren. Egunero bertan lan egiten egongo dira, eta beti **bezeroekin harremanetan** egongo dira, zalantzak argitzeko eta informazioa jartzeko, baita diseinua gutxika hobetzen joateko ere. Sare sozialetan, berriz, egunero argazkiak igotzen joango da baita informazioa ere.

- **Plataformaren promozionatzea: Plataforma promozionatzeko, zozketak** egingo ditugu, horrela bezeroek interes gehiago erakutsiko dute. Web orrialdearen **diseinua** eta sare sozialen diseinua ere zainduko dugu, begi bistara jotzeko gure bezeroei. **Kartelak** sortuko ditu Mariak.

**Honekin guztiarekin gure enpresa aurrera eramaten saiatuko gara.**

